

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL

ÉPREUVE D'ENSEIGNEMENT DE SPÉCIALITÉ

SESSION 2023

LANGUES, LITTÉRATURES ET CULTURES ÉTRANGÈRES ET RÉGIONALES BASQUE

Mardi 21 Mars 2023

Durée de l'épreuve : **3 heures 30**

*L'usage du dictionnaire unilingue non encyclopédique est autorisé.
La calculatrice n'est pas autorisée.*

Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 9 pages numérotées de 1/9 à 9/9.

**Le candidat ou la candidate traite au choix le sujet 1 ou le sujet 2.
Il ou elle précisera sur la copie le numéro du sujet choisi**

Répartition des points

1^{ère} partie : Synthèse	16 points
2^{ème} partie : Traduction ou transposition	4 points

SUJET 1

Thématique : « Cités et espaces ruraux »

Axe d'étude : « Ville et campagne dans la littérature basque »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Azal ezazu zer den herritarraren irudia ondoko testuetan.
2. Azal ezazu zer den hiritarraren irudia ondoko testuetan.
3. Ondoriozta ezazu zein izan den herritarraren eta hiritarraren irudiaren bilakaera euskal literaturan.

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du **Document 1** « Laborari ofizioaz » depuis la ligne 3 “*Ez-gare khexu*” jusqu’à la ligne 10 “*Jainkoak maite du.*” :

“Ez-gare khexu izan behar zeren Jainkoak ez-gaituen sorrarazi aitorenseme edo burjes handi.

Guzien buru, burjesa, aitorensemea eta errege bera laborariak hazten ditu; eta guziek behartzen duten ofizioa baino ohoragarriagorik ez-daite.

Laboraria Jainkoaren obretan hari da; ezen Jainkoak egin ditu gizon guziak, eta laborariaren eskutik hazten ditu. Holetan bizi da laboraria Jainkoaren begien azpian.

Zeruko ihintzak eragiten ditu uztak edo erreholtak.

Horrengatik da laboraria jainkotiar, eta Jainkoak maite du.”

Laborari ofizioaz

AITAK: Barda erran narotzun onthasunak ez-duela zoriona egiten.

SEMEAK: Zure solasa sarthu da nere baithan.

AITAK: Ez-gare khexu izan behar zeren Jainkoak ez-gaituen sorrarazi aitorenseme¹ edo burjes handi.

5 Guzien buru, burjesa, aitorensemea eta errege bera laborariak hazten ditu; eta guziek behartzen duten ofizioa baino ohoragarriagorik ez-daite.

Laboraria Jainkoaren obretan hari da; ezen Jainkoak egin ditu gizon guziak, eta laborariaren eskutik hazten ditu. Holetan bizi da laboraria Jainkoaren begien azpian.

Zeruko ihintzak eragiten ditu uztak edo errekolat.

10 Horrengatik da laboraria jainkotiar, eta Jainkoak maite du.

Gizonen begietako ere laborantza ez-da, ez ofizio aphurra, ez arbuyagarria.

Gauza jakina da presondegietan eta galeretan laborari gutiago higitzen dela, ezenetz tratulari, kargudun edo bertze ofiziotako gizonetarik.

15 Ongi bizitzekotzat, laborariak ez-du baitezpadako jauntzi ederrik behar. Jan arronta ere aski zayo, eta ez-dabila hirietako atsegin erho, galgarrien ondotik.

Laborari gare, ene seme maitea, eta ez-dezagun har bertze ofizio baten irrisik.

Orai arteo lurrari borroka egin diot, eta, ez janak, ez jauntziak ez-darotet eskasik egin.

Lagundu izan ditut hauzoak behar-orduetan. Hekien ganik laguntza berak izatu ditut ene aldian.

20 Ez dezazula erran:

Gaizki heltzen denarentzat hanbat gaixtoago; antola bedi.

Norbait atheka txarrean ikhusten baduzu, erran zazu:

Nere laguna laguntza beharrean da; goanen natzayo esku ematera.

25 Eta ongi eginen duzu; eta zure aingeruak ekharriko du zure egintza Jainkoaren aintzinerara; eta Jainkoari etzayo ahantziko; eta behar-orduan laguntzaileak igorriko darozkitzu.

Ongi egiten duenak hala ere atzematen du.

Maita zazu zure oficioa. Ez-da prezagarriagorik.

Jainkoak berak manatua izan da lur-lana, Adam gure aitari erran zionean: *Lanthuko duk*

30 *lurra, eta lurrak haziko hau* [...]

Duvoisin Jean-Pierre, *Laborantzako liburua*, 1858.

¹Aitorenseme : gizon noble

Document 2

Roxali

Tupindegiko Roxali,
tantilulilu tiluli
Tupindegiko Roxali
Paristik zaigun itzuli.
5 Dena fazoin dena takoin
arrunt gaskoin.
Tupindegiko Roxali
Paristik zaigu itzuli.

Andere handi iduri
10 Tantiruriru tiruri
Andere handi iduri
ez dio "bonjour" deneri
Ezpain gorri,
ile hori,
15 begi xuri
Andere handi iduri
ez dio "bonjour" deneri

Karrikan xut-xut ibilki,
tantikukiku tikuki
20 karrikan xut-xut ibilki
ai, espantuka badaki
Luze-luze,
mehe-mehe,
ai, tetele
25 karrikan xut-xut ibilki,
ai espantuka badaki

Hari eskuara, ez aski,
tantikukiku kikuki
hari eskuara, ez aski,
30 baina frantsesa baleki
kixkun kaxkun je suis gasconne
pas eskualdun.
hari eskuara, ez aski,
baina frantsesa baleki

35 Parisko lili, Roxali,
Tantilulilu tiluli
Parisko lili, Roxali,
bai frantximent,
bai tres jolie
40 utzan moda,
utzan tinta,
ai, potreta!
Parisko lili, tiluli,

hago eskualdun, Roxali. *Herrikoia*

Leku gutxietsiak

Urteak behar izan nituen leku gutxietsi batean hazia nintzela ulertzeko. Hasieran, haurtzaroko egunetan, bai nire herria eta bai haren inguruko mendi baserriz beteak munduaren alde eder bat iruditzen zitzaizkidan, eta bertan nagusi zen bizimodua, berriz, eduki zitekeen bakarretakoa. Gainera, orduko denbora hark ustekaberik gabeko gurpilak 5 bezala aurreratzen zuen, aukera berberak behin eta berriro eskainiz, eta erregulartasunak habetu egiten zuen mundu eta bizimodu haien sendotasuna : udako egunetan igeri egitera joaten ginen errekaen presa txikira, eta igeri egin eta gero amuarrainetara edota txori habiak bilatzera : negukoetan, eskolako orduak nagitasun handiz bete eta gero, mendira jotzen genuen elurretan ibiltzera, edo bestela, berriro ere, txori harrapaketari ekiten genion 10 zepoak bekorotzetan gordez. [...]

Zenbaitetan, atzerritarrak herrira etorri eta fotografiak egiten zizkigutenean, sortzen zitzaigun dudaren bat, zergatik begiratzen ote zuten zeharka, zergatik horrenbeste komedia eta erretratatzeko makina. [...] Leku gutxietsia, gurea ? Inork esan baligu, erotuta zegoela pentsatuko genuen.

15 Ezinezkoa da, ordea, haurtzaroko egurrean sartuta geratzea, eta nahikoa izan zitzaigun herritik atera eta hiriko kolegio batean matrikulatzea. Bestearen begiradarekin egokitu eta egiaren bigarren aldeaz jabetzeko. Egun batean, ikastetxeko prefektoa izango zen, soinketa saio batean azaldu eta « etor daitezela herri txikietako morrosko horiek ehun flexio egitera » esaka ; hurrengoan, ikaskide haserreturen bat – esan dut hau lehenago ere 20 – « behi kiratsa daukak » botaka ; hurrenagokoan, ikastaro bukaerako jaialdira etorritako komikoa, baserritar kirtenen kontutxo irrigarrien artean gure aitaren herrian gertatutakoa – « hangoak bai direla astakiloak » - aipatzen.

Argitasuna berehala etorri zen gure gogora : ez ginen, aurrez pentsatu bezala, munduko beste edozein ume bezalakoak, baizik eta irrigarri atzeratu, azken. Hori zioen Besteak, eta gutxietsi egiten gintuen. Ginen lekukoak ginelako, gutxietsi.

Atxaga Bernardo, *Lekuak*, 2005

SUJET 2

Thématique : « Expression de l'amour »

Axe d'étude : « L'expression du sentiment amoureux »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Maitasuna askatzailea, babeslea ala hertsatzailea, suntsitzailea ote da ? Azal ezazu.
2. Erran daiteke maitasuna berezkoa, naturala dela ala printzipio eta balore batzuen arabera eraikia ?
3. Zein heinetan eragiten du kontestuak maitasunean ?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du document 1 depuis la ligne 1 "*Gaur bertan*" jusqu'à la ligne 10 "*sarrarazten*":

Gaur bertan esango diozu aitari, ez duzu ballet-eko klaseekin jarraitu nahi. Ez zaizu inoiz gustatu, bere nahia izan da beti, ez zurea.

Autoan doa aita. Kilometroak egiten ditu egunero lanetik etxera eta etxetik lanera. Euria ari du gogoz. Alabarekin hitz egin behar du. Gaur bertan egingo du, afaldu ondoren. Gehiegizkoa izan zen asteburukoa. Zerbait egin behar dute neskak nahi duena egiten du eta. Amak gehiegi utzi diola pentsatzen du, txikitatik izan duela nahi izan duen guztia, eta ez diotela sekula ezetzik esan.

Oraindik umea bazina bezala tratatzen zaitu aitak. Eta ezin duzu jasan. Lagun guztien aurrean lotsarazi zintuen larunbat gauean. Oraindik lotsa ematen dizu gogoratzeak. Aita zoro aurpegiarekin zuregana gerturatzen, besapetik heltzen eta autora sarrarazten.

Dantzan

Punta-takoi, punta-takoi, punta. Gaur bertan esango diozu aitari, ez duzu ballet-eko klaseekin jarraitu nahi. Ez zaizu inoiz gustatu, bere nahia izan da beti, ez zurea.

Autoan doa aita. Kilometroak egiten ditu egunero lanetik etxera eta etxetik lanera. Euria ari du gogoz. Alabarekin hitz egin behar du. Gaur bertan egingo du, afaldu ondoren.
5 Gehiegizkoa izan zen asteburukoa. Zerbait egin behar dute neskak nahi duena egiten du eta. Amak gehiegi utzi diola pentsatzen du, txikitatik izan duela nahi izan duen guztia, eta ez diotela sekula ezetzik esan.

Oraindik umea bazina bezala tratatzen zaitu aitak. Eta ezin duzu jasan. Lagun guztien aurrean lotsarazi zintuen larunbat gauean. Oraindik lotsa ematen dizu gogoratzeak.
10 Aita zoro aurpegiarekin zuregana gerturatzen, besapetik heltzen eta autora sarrarazten.

Zaparradak jarraitzen du. Aitak pentsatu du ez dutela asmatu alaba hezten. Hainbeste kilometro egunero, alabari onena emateko, eta gero horrela eskertzen diola pentsatu du, kasurik egin gabe, eta asteburuan esan zizkion bezalako hitz mingarriekin.
Hobe hiltzen bazara.

15 Asteburuan ez zarela irtengo esan zizun, zigortuta geratuko zarela etxean. Ez zaituzte sekula zigortu eta badakizu ez direla ausartuko. Gai zara negar eta txilio¹ etengabeen hasteko, baita zure gela txikitzen hasteko ere. Zergatik jartzen dira etengabe zure poztasuna moztu nahian? Aita da txarrena. Amak ulertzen zaitu askotan,edo hala adierazten du zu ez haserretzeko. Negar baino ez du egiten amak. Aitak oihuak bota eta
20 agiraka² egiten baino ez daki. Ziur ez dakiela negar egiten ere.

Larunbatean izandako liskarraren³ ondoren alabak esan zionak asko mindu zuen. Hiru hitz: *hobe hiltzen bazara*. Hitz horiek labanak bezala sartu zitzaizkion paparretik. Ia ez du errepidea ikusten, baina ez da euria bakarrik bista galarazten diona, hitz haiek gogoratzean malkoz bete zaizkio begiak. Alkandoraren maikarekin saiatu da begiak
25 sikatzen baina jasa etengabeko da. Berriz sentitu du autoa labain egiten⁴ eta errepide zati bat, belarra, zuhaitz bat. Horiek ikusi dituen azkenak kolpea hartu aurretik.

Musikaren erritmoa bizkortu egin da irakasleak emandako txaloen erritmora. Bira, bira, bira ari zara, eta bat-batean ez duzu ezer ikusten. Lurrera jausi zara, zorabiatuta.

Karmele Jaio, *Zu bezain ahul*, 31-35. orrialdeak, 2007.

¹ Txilio : orro, marru, garrasi

² Agiraka egin : erasiatu, errieta egin

³ Liskar : tirabira, mokokaldi, kasail

⁴ Labain egiten : lerratzen

Document 2

Gazteek nahiago omen dute erromantizismoa

Pandemia ondorengo amodio harremanak aztertu dituen ikerketa baten arabera, orain gazteen artean benetako amodioa bilatzen da.


Mende honen hasieran, 2000. urtean, poloniar-britainiar soziologo eta filosofo Zygmund Bauman-ek **liquid love** (maitasun likidoa) esamoldea asmatu zuen. Horren bidez, garai horretan nagusitzen ari zen harremanen hauskortasuna islatu nahi zuen. Elkarrekiko konpromezua¹ ez zen garrantzitsuena bikote harremanetan. Sare sozialen gorakadarekin joera hori behin betiko nagusitu behar zela zirudien, noizbehinkako harremanak erraztu zituztelako. Hala ere, badirudi pandemiak harremanak ulertzeko modua aldatu duela. Orain, maitemintze prozesuaz gozatu nahi da, ez dago presarik. Horrela, bikotekide bila direnen artean, % 79k dio ez dituela noizbehinkako harremanak nahi eta nahiago dutela benetako amodioa aurkitzea. Hori da, hain zuzen ere **Adopte-k** (duela gutxi arte **Adopte un Mec** izenarekin ezagutzen zena) berriki kaleratu duen “ **Europako gazteen pandemia osteko maitasun harremanen tendentziak** ” azterlanaren ondorio nagusietako bat.

Inkesta horren arabera, ‘konkista’ teknikak aldatu dira. Izan ere, gero eta gehiago omen dira egiazko amodioaren bila diren pertsonak. ‘Liquid love’ joeratik ‘**slow love**’ joerara pasatzen ari ei gara. Aipatu ikerketaren arabera, ligatzeko² aplikazioetan izena ematen dutenen artean, % 65ek bikotekide egonkorra aurkitu nahi dute. Horrelako aplikazioak erabiltzen dituztenen artean bi heren inguruk uste du tresna horien bidez posible dela benetako amodioa aurkitzea. Era berean, gazteen %89k aitortzen du faltan botatzen duela erromantizismoa eta nahiago duela aurreko harreman-eredua non bikotekidearen bihotza lortzeko askoz lan handiagoa egin behar zen. Bada gorputza baino zerbait gehiago bilatzen dela erakusten duen adibide bat : bikotea bilatzen ari diren gazteen erdiak baino gehiagok (% 57) dio deskribapena profileko argazkia baino garrantzitsuagoa dela. Eta ia erdiek (% 45) adierazi dute pertsona baten nortasuna ezagutu ahal dela horrelako aplikazio baten bidez.

Gazteberri, *Pandemia ondorengo amodio harremanak*, 2022.
<https://www.gazteberri.eus/?p=12237>

¹ Konpromezu : engaiamendua

² Ligatu : dragatu



GERO, NIK BANUEN
BERTZE KEZKA
BAT: BAZEN ALDE
BATETIK HOMO-
SEXUALA IZATEA
ETA BERTZETIK
EUSKALDUNA
IZATEA. ENE
BURUAN BI MUNDU
HORIEK EZ ZIREN
BATERAGARRIAK,
ETA ARRUNT
BEREIZTEN
NITUEN. EUSKAL
GIZARTEAN

BADIRA TRANSMI-
TITZEN DIREN
BALIO BATZUK:
OHOREA, FAMILIA,
LANA, FEDEA,
HIEKUNTZA
... 20 URTE
NITUELA RIK,
HOMOSEXUALI-
TATEAK EZ ZUEN
EUSKAL MUNDUAN
TOKIRIK, EDO
BIZIKI GUTI,
ETA EZ NUEN
IKUSTEN NOLA
INTEGRATZEN
AHAL NINTZEN.